

AUTO ZERGA

A) TURISMOAK	
8 zaldi fiskaletik beherakoak	23
8-11,99 zaldi fiskal bitartekoak	65
12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak	125
14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak	142
16-19,99 zaldi fiskal bitartekoak	180
20 zaldi fiskaletik gorakoak	240
B) KAMIOIAK	
1000 kg. beherako zama	82
1000-2999 kg. bitarteko zama	164
3000-9999 kg. bitarteko zama	230
9999 kg.-tik gorako zama	290

C) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskaletik beherakoak	32
16-25 zaldi fiskal bitartekoak	52
25 zaldi fiskaletik gorakoak	162
D) BESTE IBILGAILU BATZUK	
Ziklomotoreak 125 c.c.-tik beherako	8
125-250 c.c. bitartekoak	14
250-500 c.c. bitartekoak	28
500-1.000 c.c. bitartekoak	68
1.000 c.c.-tik gorakoak	120

ZABORRAK

Etxebizitzak	70
Taberna eta jatetxeak	170
Merkataritzako lokalak	170
5 behargin arteko industria eta lantegiak	252
6 - 10 behargin bitartekoak	385
11 - 25 behargin bitartekoak	514

ESTOLDERIA Urteko kuota 20 €-koa izango da.

URA ETA SANEAMENDUA: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Tarifak
H.O.Z . Higiezin Ondasun Zerga (I.B.I.) : 2010. urtean % 0,95 izango da (Bai nekazal eta hiri eremukoak)

HEMEN DAUKAGU 2010KO AURREKONTUEN ZIRIBORROA (PROPOSAMENAK EGITEKO 2009 KO ABENDUAK 23RARTE)

SARRERAK

KAPITULUAK	IZENA	EUROTAN
I	Zuzeneko zergak (higiezinak, ibilgailuak, plusbaliak...)	49.000
II	Zeharkako zergak (obrak egiteagatik jasotakoak)	26.000
III	Tasak eta beste sarrerak (ura, zaborra, estolderia...)	25.000
IV	Transferentzia arruntak (Administrazioko dirulaguntzak)	474.667
V	Ondasunezko sarrerak (udal lokaleen alokairuak)	10.000
VII	Kapital transferentziak (Beste erakundeetako dirulaguntza)	65.000
SARRERAK GUZTIRA		649.667

IRTEERAK

KAPITULUAK	IZENA	EUROTAN
I	Pertsonalaren ordainsariak (langileen soldata, aseguruak)	192.000
II	Ondasun eta zerbitzu erosketa (konponketak, erregaia...)	140.000
III	Finantza gastuak (maileguen gastuak)	12.000
IV	Transferentzia arruntak (Amankomunazgoa, Eudel, jaiak..)	114.000
VI	Inbertsio errealak (obrak egiteko, tresneria erosteko...)	156.667
IX	Finantza pasiboak (maileguen amortizazioa, interesak...)	35.000
IRTEERAK GUZTIRA		649.667

INBERTSIOAK

IZENA	EUROTAN
Baserrri bideak eta Uztebakoak 2010	40.000
Ziburu barriak eta ingurua konpontzea	57.000
LEADER 2008/2009 dirulaguntzak zenbait proiektuetarako	8.000
Herri indikadoreak, etxe bakarretako argiak eta soinu ekipoa	31.667
Udal planeamendua amaitu eta Iruzubietako deposituko lurra	20.000
GUZTIRA	156.667

DIRULAGUNTZAK

IZENA	EUROTAN
Baserrri bideak eta Uztebakoak 2010	40.000
Ziburu barriak eta ingurua konpontzea	25.000
GUZTIRA	65.000

Herria egiten

Ziortza-Bolibarko Udal Aldizkaria

3. zk. 2009ko abendua



Ziortzako Monasterioa

Gaiak:

- 1- Ur tratatua Bolibar eta auzo guztietan.
- 2- Ziortza-Bolibarko arau ordezkatzailak.
- 3- Saneamendu sarea Bolibar eta auzo guztietan.
- 4- Iruzubietako Bolibar errepide berria.
- 5- Umeentzako parke berria.
- 6- Estatuko fondoen laguntza.

Udaletik



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

BOLIBARKO AUZO GUZTIETARA UR TRATATUA ERROTALDETIK


Urte osoan zehar, auzo guztietan ura egongo dela bermatuko du Errotaldeko biltegiak.

Ziortza-Bolibarko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, ubide sarea berriztatuko du aurten. Proiektuan aurreikus daitekeenaren arabera, Bolibar inguratzen duten lau auzoetan dauden biltegi txikiak, Errotalde inguruan eraikitako biltegiak hornituko ditu. Proiektu hau 2,5 milioi euro ingurukoa izan da.



ZIORTZA-BOLIBAR UDAL PLANGINTZAKO ARAU ORDEZKATZAILEAK

2009ko uztailaren 29an onartu ziren Ziortza-Bolibarko Hiri Antolamenduko Arau ordezkatzzaileak; egiturazko hirigintza-antolamenduko plana osatzen dute, eta horren aplikazio-eremua udal mugen artean dagoen barruko lurralde osora hedatzen da.



Ziortza-Bolibar berriro ere udalerrri burujabea da 2004-11-30etik, Markina-Xemeindik desanexionatu ostean. Horrek, bere udal planeamendu propioa edukitzeko eskubidea ematen dio eta bere hirigintza irizpideak antolatzen ditu.

Udalaren borondate nagusia udal planeamendua egiterakoan, herriko hirigintza garapena dinamizatzea izango da.

Hirigintza garapen horretan bi atal nagusi landu dira:

1-Bolibar herrigunearen zabalkundea okindegi inguruan eta Orua-Olatxu bitartean. 2008-2020 aldirako, argazkiko maketan ikusten den bezala hazkunde moderatua aurreikusten du Udalak Ziortza-Bolibarko populazioan.

2-Herriko Arta, Iruzubieta eta Zeinka auzoei landa-auzune izaera eman, eta neurri txikiagoan bada ere, garatzeko aukera urbanistikoa eman.

ZIORTZA-BOLIBARKO SANEAMENDU SAREAREN PROIEKTUA

4,3 milioi euroko inbertsioa egingo du BFAko Ingurumen Sailak Ziortza-Bolibarko saneamendu sare hau egiteko.

Alde batetik, lehendik zegoen zatia berritu egingo da; hau da, erreka inguruan doan Bolibar herriguneko ur lohien kolektorea, Flores etxean hasi eta Abadetxe ondo bano beheratxoago amaitzen dena. Obra berriarekin, Abadetxe ondotik hasi eta beherantz, Iruzubietarainoko kolektorea sartuko dute. Hortik, berriz, lotuta geratuko da Markina-Xemeingo ur lohien araztegiraino lehendik ere eginda dagoen kolektoreagaz.

Artan, Zeinkan eta Ziarregin, araztegi txiki bana:

Bolibarko herriguneari ez ezik, hiru auzo horiek ere ur lohien tratamendurako sare txiki bana edukiko dute.



Arta auzoan, Sangroniz aldean izango da ur lohien batzeko hasierako puntua, eta hortik beherantz, auzuneko etxeetako estolderiak jaso eta araztegi txiki batera joango dira.

Ziarregin, hasiera puntuak Luxarren eta Aberanga Nagusin egongo dira, eta hortik beherantz bideratuko dira araztegi berrira.

Zeinkan, azkenik, ur lohien sare berriak adar bi edukiko ditu: bata Zelaitzi hasiko da, eta bestea Onaindiatik. Beherago, biak batuko dira, auzoko araztegi berrira isurtzeko.

Hasiera batean, Udalak Aldundiari eskatu zion auzoetako ur lohien ere Bolibarko kolektorera jaisteko azterketa egin zezan, baina, kasu guztietan ere dauden aldats handiak direla eta, Aldundiak aukera hori baztertu egin zuen, eta auzo bakoitzean araztegi txiki bana eraikitzea erabaki.

BI-2224 ERREPIDEA EGOKITZEKO PROIEKTUA: IRUZUBIETA-BOLIBAR, ZAZPI METROKO ZABALERAKO ERREPIDE BERRIA

BFAko Herri Lan Sailak 3,8 milioi euroko inbertsioa egingo du Bolibarko herriguneari eta Iruzubieta lotzen dituen BI-2224 errepideko 1,6 kilometro inguruko zatia eraberritzeko. Proiektua onartuta dago eta 2010. urtarrilean lanean hasiko dira. Errepide berrituaren bide bakoitzak hiru metroko zabalera edukiko du, eta alde banatan metro erdiko bazterbideak. Horrekin batera, alde batetik metro erdiko berma edukiko du, eta bestetik euri urak jasotzeko areka. Obra honen barruan biribilgune bat ere eraikiko da Bolibarko herri sarreran eta zubi berria Olatxu inguruan. 2005ean egindako azterketaren arabera, errepide horretatik egunero pasatzen ziren autoak 1.383 ziren, batez beste.




ZIORTZA-BOLIBARKO UMEEN PARKE BERRIA

Udaletxe atzean dagoen gunean, herriko jendearen aisialdirako beharrezkoak diren azpiegiturak egitea da ekintza honen helburua. Aurten urbanizazio guztiaren lehenengo fasea burutuko da eta egin nahi diren lanak, inguruak duen kalitatea hobetzeko izango dira; besteak beste:

- Gaur egun duen lurzorua aldatu eta segurtasuna bermatuko duena jarri.
- Udalerrian dagoen antzeko argiteria jarri.
- Jendea jarri ahal izateko, hiri altzariak ipiniko dira.
- Umeek jolasteko parke berria instalatuko da.
- Aurrekontua guztira 95.000eurokoa izango da.

Ziortza-Bolibar haur parke berria



ESTADUKO FONDOTIK JASOTAKO DIRU LAGUNTZA

2009an 59.000 €-koa izan da. Diru honekin Udaletxe gaineko pisu bat berritu da eta beste pisuan 65m2ko lokala utzi da ludoteka edo liburutegi moduan erabiltzeko. 2010ko laguntza 42.000 €-koa izango da, diru horrekin kanposantua konpondu nahi dugu; bere kapera eta alde bien teilatua eta hormak berriztuko ditugu.